

## HAUSGARRI eta HAUSKOR-EN ERABILERA DELA ETA

Gasteizen, 1998ko urriaren 21ean.

Diego Tobarri erantzuna

Gramatika batzordearen ustez, *hauskor* erabili beharko litzateke gutunean ematen den adibidean (*kontuz edalontziarekin, hausgarria / hauskorra da eta*).

Baliteke zenbait hiztegitan (batez ere oinarritzat eta abiapuntutzat eskal testuak izan ez dituztenetan) *hausgarri* ere agertzea, erraz hausten den edo hauts daitekeen zerbait adierazteko; izan ere, hori ere bada *-garri* atzizkiaren erabileretako bat (gaztelaniazko *-ble*-ren ordain izan daitekeena). Hala ere, ez da balio hori *-garri* atzizkiak duen bakarra ez eta ere nagusia. Horretaz jabetuko gara literatur tradizioko datuak aztertzen baditugu. Ohartuko gara ez dagoela erabilera horren lekukotasun bat bera ere *hautsi* aditzarekin; beti agertzen da *-kor* (34 agerraldi *Orotariko Euskal Hiztegiaren* corpusean) atzizkia duela. Adibidez:

- *Txirula hauskor.*
- *Ontzi hauskor.*
- *Kristala baino hauskorragoa den Jainkosa ...*
- *Bid(e)ria baino hauskorragoak gara ...*
- eta abar

*Hausgarri* forma, aldiz, bi alditan bakarrik agertzen da literaturan; beste erabilera batekoak biak, ordea. Kasu hauetan ez du esan 'erraz hausten dena', baizik eta 'hautsi egiten dena', balio eragilea duena. Hori da, hain zuzen ere, *-garri* atzizkiaren erabilera nagusia, aktiboa (hautsi egiten du) eta ez pasiboa (hautsi egiten da). Ikus ditzagun horren adierazgarri literaturako bi adibideak:

— *Enetzat bihotz-hausgarri da ikhustea asko laborari ardirik gabe txarki bizitzen, izan letzazketelarik, berak nor balira, ongi bizitzeko behar bezenbat.* (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 268).

— *Erromako gortetik, Aita Saindua ganik, Jin dire berriak Pontifo berrientzat, Apez zin egilentzat, bihotz hautsgarriak eta latzgarriak.* (S. Monho, *Poemak*, 26).

Bi adibide hauetan bihotzak ez dira “hausten errazak” edo “hauts daitezkeenak”; “laborariak ardirik gabe ikusteak” hausten du bihotza lehen adibidean eta “Pontifo berrientzat jin diren berriek” hausten dute eta lazten bihotza, bigarren adibidean.

Jesus Mari Makatzaga,  
Gramatika batzordeko idazkaria